

zakurrak ura galdu  
 zezan egin zuben,  
 bere buruba sartu  
 murgillian urtan,  
 eta nola chimuba  
 etzeiken egon an,  
 libratu rik zakurra  
 chimubaren gandik  
 itota urak zuben  
 au eraman andik.

. . . . .  
 Emen ikusten dira  
 chimubaren lanak,  
 zer bidetan paratu  
 zituben lagunak;  
 gaitzik nai ez dubenak  
 beretzat ekarri,  
 ez belarririk lagun  
 gaiztoari jarri.

## TRIKUBA ETA UR-ATEAK.



Trikuba zijoala  
 aldaparan gora,  
 amildurik, bueltaka  
 joan zan erriora;  
 eta ito ez ito  
 zebilela urtan,  
 portunaz ur-ate bat  
 gertaturik bertan,  
 onek lagun egiñik  
 alzuben guziya,  
 triku on ari zion  
 salbatu biziya.  
 Geroz beste batean  
 triku ura bera,  
 jankai billa aldapan  
 jachirikan beera,  
 bazterka zan denboran  
 iya ureratu,

zuben pisti chikien  
 negar otsa aitu;  
 eta arrimaturik  
 ikustera zer zan,  
 billatu zuben ate-  
 kume pilla bertan,  
 zeñen gaiñoak oso  
 chikiyak baitziran,  
 eta jaberik gabe  
 arkitutzen ziran;  
 ollo berak berotzen  
 gañean egona,  
 zan nonbait zerbait izuz  
 andik itzul joana:  
 eta oroimendurik  
 ume aien amaz,  
 ark urtan beragatik  
 egin zuben lanaz,

eta nairikan esker  
 on bat erakutsi,  
 esan zuben: «oek nik  
 ez nitzake utzi:  
 nik ditut berotuko,  
 nik ditut aziko,  
 ni naiz beren zalanzan  
 aurrera biziko»;  
 eta on naian joanik  
 beraren gañera,  
 ollo orde estalkai  
 gelditu zan bera;  
 bañan ¡o! bero paltan

iya ilziranak,  
 aranzatriskatubak  
 izan ziran denak.

. . . . .

On egitea on da  
 ezer eta bada,  
 beti egin bedi on  
 inola albada;  
 bañan jakin bear da  
 egiterako on  
 egin bide ark gaitzik  
 ekarri leikion.

RAMON ARTOLA.

